

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:**

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales/as:

EH-Bildu

Andoni Alvarez Lete
Estibalitz Mujika Tolaretxipi
Jon Zulueta Berastegi
Garazi Usandizaga Zubiria
Julian López Aracama
M^a Teresa Etxeberria Arteun
Xabier Fondón Pajares

PSE-EE

José Luis Verdasco Gutierrez
Ascensión Parrón Peguero
Petra Romero Pozo
Oscar Mendo González

EAJ-PNV

Maria Jose Izagirre Iturzaeta
Mikel Arregi Aranburu
M^a Sagrario Ruiz Fernández
Imanol Goenaga Egibar

Elkarrekin Podemos M^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000002
Eguna	2021/01/28
Hasiera	19:00
Amaiera	20:54

Idazkaria

Leire Rodriguez Lasarte

KontuhartzaileaMyriam Lizaso
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

Gai Zerrenda:

- 2020/12/17an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- Alexander Huitzi Alfonso jaunak Zinegotzi kargua hartzea.
2021. ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzea.
- Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa elkarteak 2020/01/19an aurkeztutako mozioa, Covid19 ondorioz jasandako egoera larria dela eta.

Kontrola

- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, zehazki, 709/2020 zenbakidunetik 796/2020 zenbakidunera.
- Zinegotzi-Ahaldunen ebazpenen berri ematea, zehazki, 1001/2020 zenbakidunetik 1198/2020 zenbakidunera.
- Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 17/12/2020.

Parte Dispositiva

- Toma de posesión del cargo de Concejal de D. Alexander Huitzi Alfonso.
- Aprobación del Presupuesto General ejercicio 2021.
- Moción presentada el 19/01/2020 por Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa, en relación a la situación de emergencia relacionada con el Covid19.

Parte de Control

- Dar cuenta de las Resoluciones de Alcaldía comprendidas entre la n° 709/2020 y la n° 796/2020.
- Dar cuenta de las Resoluciones de Concejal-Delegado comprendidas entre la n° 1001/2020 y la n° 1198/2020.
- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.



Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko: “Arratsalde on, ikusi dezakezutenez eta Covid19 dela eta, oraindik, noski, distantzia tarte guztiak zaindu behar ditugu eta horrexegatik, ikusiko dezue hemen mahaian zinegotzi batzuk gaudela eta bankuetan beste zinegotziak daudela.

“Decía que, por la situación excepcional del Covid19, podrán ver que en la mesa estamos parte de los concejales y el resto están sentados en los bancos del salón de plenos.

“Hau esanda, hasiera emango genioke gaurko udalbatzarrari.”

1. 2020/12/17an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Zinegotziari bidali zaien 2020/12/17 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Alkateak honen onarpena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, ontzat eman du.

2. Alexander Huitzi Alfonso jaunak Zinegotzi kargua hartzea.

Idazkariak aditzera ematen du Hauteskunde Batzorde Zentralak emandako zinegotzi kredentziala 2021eko urtarrilaren 25ean jaso zela, Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ/PNV) 2019/05/26ko toki-hauteskundeetan aurkeztutako hautagaien zerrendari jarraiki eta HAOLoren 182.2 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, Andoingo Udaleko zinegotzi kargurako hautagarritasun- eta bateragarritasun-baldintzak, zehazki, HAOLoren 177. eta 178. artikuluetan jasotakoak, betetzen dituela.

Jarraian, alkate andreak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Alexander Huitzi Alfonso jauna, hautatutako zinegotziak beharrezko eskatutako dokumentazioa aurkeztu duela eta aitortuta jarraian, zinegotzi jaunari karguari omen edo zin egingo dion hitza hartuko diot.

“Horretarako hitz emateko edo zin emateko adierazpena eta udal idazkariak izendatutako zinegotziaren izena esan ondoren, bai hitz ematen dut edo bai zin egiten dut, erantzun beharko du.”

“Alexander Huitzi Alfonso, zin egin edo hitz ematen duzu Andoingo udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak fideltasunez beteko dituzula eta Konstituzioa estatuko funtsezko arau gisa gorde eta zainaraziko duzula?”

Alexander Huitzi Alfonso jaunak erantzun du:

“Bai, zin egiten dut.”

Jarraian, alkate andreak zinegotzi karguaz jabetu dela adierazi du. Zorionak eta ongi etorria izan.

3. 2021. ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzea.

Alkate andreak hartu du hitza eta honakoa adierazi du:

“Lehenik eta behin esan, 2021. urteko aurrekontu proiektua, 21.800.000 mila eurokoa da eta, aurreikusten da apirilean gerakina dagoenean iguera nabarmena izango duela, batez ere, inbertsio partidetan.

“Decíamos que el presupuesto para 2021 asciende a la cantidad de 21.800.000 euros, con la previsión de que en abril, una vez que tengamos el remanente, pueda sufrir un incremento sustancial sobre todo en las partidas inversoras.

“Gutxi gora behera egingo duguna da aurkeztea eta horretarako, batez ere, ezberdintasunak edo puntu nabarmenak aipatuko ditugu gehiegi ez luzatzeko.

“Decía que vamos a presentar el presupuesto y para ello, sobre todo, nos vamos a centrar en las partidas que son más novedosas o diferentes, para tratar de no alargar demasiado la presentación.

“Partida berri hauen artean, esate baterako, 100.000 euroko partida bat aurreikusten dugula saila desberdinetan, udal lau ibilgailuen flota pixkanaka-pixkanaka berritzeko, batez ere, klima eta jasangarritasun erronkei egiteko.

“Por un lado tenemos varias partidas, en diferentes departamentos que suman un total de 100.000 euros para la renovación progresiva de la flota de cuatro vehículos municipales para afrontar los retos climáticos y de sostenibilidad.



“Langileria sailan, batez ere, finkatzea 75.000 euroko partida ekipo informatikoak berritzeko eta 60.000 euro Covid 19k eragindako gastuetarako.

“Por un lado una partida de 75.000 euros para la renovación de equipos informáticos y 60.000 euros para los gastos causados por el Covid19.

“Baita ere, hemen aipatzea gobernua salarioetan proposatutako igoera izango litzatekeena %0,9.

“Decía que también está previsto el incremento del 0.9% que el gobierno prevé en los salarios.

“Zerbitzu sailean, batetik, 425.000 euroko partida udal instalazioetako garbiketa agiri berria ateratzeko.

“También hemos tenido que, como todos saben, por el Covid reforzar todo lo que son las partidas de limpieza de instalaciones municipales y en esa línea se prevee sacar el nuevo pliego que ascendería a 425.000 euros.

“Baita ere, 160.000 euro ura kontagailuan digitalizatzen hasteko.

“Se reservan 160.000 euros para comenzar con la digitalización de los contadores de agua.

“60.000 euroko partida bat KARRIKA auzoan komun publiko berri bat jartzeko.

“60.000 euros para la instalación de un baño público en el barrio KARRIKA.

“Bukatzeko eta lehen aipatu dudana bezala, ibilgailuen flota aldatzen joango ginatke eta, horri lotuta, 80.000 euroko partida ikusiko genuke kargatze elektrikoko bi puntu instalatzeko.

“Se reserva una partida de 80.000 euros para la instalación de dos puntos de recarga eléctrica.

“Hirigintza sailean, batez ere, 146.000 euroko partida izango litzateke Rikardo Arregi biribilgunea eraikitzeke.

“146.000 euros para la construcción de la rotonda de Rikardo Arregi.

“125.000 euro proiektuetan, batez ere, kiroldegiko proiektua aurrera eramateko.

“125.000 euros para estudios y proyectos del departamento de urbanismo, de los cuales una parte muy importante iría destinada al proyecto de renovación del polideportivo Allurralde.

“68.000 euroko partida udal etxebizitzak eta lokaletarako, jarraitzeko udal etxebizitzak berritzearekin.

“68.000 euros para seguir reparando y adecuando las viviendas municipales.

“35.000 euro jasagarritasun energikorako ekintzetarako.

“35.00 euros para acciones de sostenibilidad energética eta, 23.500 euroko partida klima aldaketaren aurkako egokitze planerako. Es decir, una partida de 23.500 euros, también, para el plan de adaptación al cambio climático.

“Gizarte Zerbitzuetan, aipatzekoa, batez ere, noski, jarraituko genuke Eusko Jaurlaritzak ematen digun diru kopuruarekin AESei aurre egiteko eta batez ere aipatu, 153.000 euro gordeko ditugula udalak egiten duen aportazioa izaten ditugun kasu guztiei aurre egiteko.

“Decía que por una lado está la partida de asistencia de emergencia social que nos dá el Gobierno Vasco pero, también, una partida de 153.000 euros que sería la aportación municipal para hacer frente como consecuencia del Covid, pues todos sabemos que se están incrementando las ayudas sociales que damos desde el ayuntamiento de Andoain.

“Baita ere, 75.000 euroko partida sortuko genuke gazteentzako, alokairu laguntzetarako.

“Reforzamos la partida que había para ayudas de alquileres para jóvenes y ahora la dotamos con 75.000 euros.

“Dakizuen bezala, proiektu garrantzitsua izango litzateke Eguneke Harreta Zentroa martxan jartzea eta horretarako aurreikusten dugu 28.100 euroko partida.

“También, como todos ustedes saben, estamos queriendo poner en marcha el Centro de Atención Diurna y ya lo dotaríamos de una partida de 28.100 euros para que se ponga en marcha ya en este 2021 y se pueda dar servicio ya no sólo a las personas que están dependientes sino también a las personas autónomas o que tengan dependencia I.

“Baita ere, errefortzatu genuke eskola materiala erosteko partida, dirulaguntza, 15.000 eurokoa.

“Reforzaríamos la partida con 5.000 euros más, para las ayudas económicas por compra de material escolar de manera que nos queden 15.000 euros.

“Eta, azkenik, 5.000 euroko partida sortuko genuke Tratu On programari aurre egiteko.

“Crearíamos la partida, como fué el compromiso que hicimos con Tratu On, para poner en marcha



con 5.000 euros la realización de este programa que como saben va dirigido a la atención a los menores.

“Hezkuntza eta Kultura sailean batez ere, jarraituko genuke Basteron andoaindarrentzako eskaintza erakargarria proposatzen eta, batez ere, partida berri bat sortuko genuke 35.000 eurokoa tokiko ondarea garatzeko eta dinamizatzeko.

“Lógicamente nos comprometemos a seguir programando en Bastero una oferta atractiva, para todas y todos los andoaindarras y, luego una partida de 35.000 euros para el desarrollo y dinamización del patrimonio local.

“Eta, bukatzeko, 4.000 euroko beste partida bat Hezkuntza Gunea proiektua aurrera eramanteko.

“Una partida de 4.000 euros para llevar a cabo el programa titulado Hezkuntza Gunea.

“Euskara sailean, batez ere, bi gauza aipatzeko, batetik, 20.000 euroko partida bat Martin Ugaldere ondarea baliozteko, jakinaren gainean egongo zaretelako baita, aurtan Andoingo udalak hainbat ekintza egiteko asmoa baitu bere mendeurrena dela eta.

“Vamos a dotar de una partida de 20.000 euros que se destinará a la puesta en valor del patrimonio Martin Ugalde en el año en el que se cumple el centenario de su nacimiento.

“Beste 20.000 euroko partida Garagorriena proiektua aktibatzen.

“Una partida de 20.000 euros también para activar el proyecto Garagorriena.

“Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria sailean nabarmentzeko da Covid19 dugun egoerarekin aurreikusi dugu 100.000 euroko partida bat eta nahikoa izango ez balitz, urtean zehar indarguko genukeen partida izango litzateke.

“Decía, destacar una nueva partida que también por la situación excepcional del Covid prevenimos de 100.000 euros para hacer frente a posibles situaciones que se puedan dar y lógicamente si fuera necesario a lo largo del año la dotaríamos de más dinero.

“Baita ere, aipatzeko 162.500 euroko partida bat gazteria dinamizatzeko zerbitzua eskaintzeko.

“162.500 euros para licitar el servicio de dinamización de juventud.

“Berdintasun sailean, batetik, 14.000 euroko partida bat zainketak nork egiten dituen diagnostikatzeko, hau ere, guztion artean hartutako konpromezu bat izan zen, azaroaren 25ean.

“Una partida de 14.000 euros para realizar un diagnóstico sobre quién realiza los cuidados, que fué uno de los aspectos que todos nos comprometimos en el día del 25 de noviembre.

“10.000 euroko partida sexologiari eta bikoteari buruzko aholkularitza zerbitzua abian jarteko.

“10.000 euros para la puesta en marcha de un servicio de asesoramiento sexológico y de pareja eta, bukatzeko, Jarduera Fisikoaren eta Kiroletako sailean 20.000 euroko partida bat kirol instalazio eta inbertsionetarako. Noski, gero, gerakinarekin indartuko duguna.

“Una partida de 20.000 euros para inversiones en instalaciones deportivas que, conforme tengamos el remanente también será implementada.

“Hauek izan dira gure ildo nagusiak eta esan gure iritziz aurrekontu estrategiko eta arduratsua dela aurkezten duguna, Andoingo herritarrak gure politika guztien erdigunean jartzen dituen, bi helbururekin, batetik, gizarteko izatea, udala ondoan senti dezaten eta, inor atzean gelditu gabe eta betetik, Andoainen suspertzea eta bultzada izatea. Esan nahi dut, Covid19k udalerrian duen eraginari aurrez egiteaz gain, suspertze sozioekonomikorako oinarriak ezartzea eta Andoaineri bultzada bat ematea ahalbideratuko duena.

“Decíamos que, en nuestra opinión, consideramos que es un presupuesto estratégico y responsable que pone a la ciudadanía de Andoain en el centro de todas nuestras políticas con un doble objetivo, por una parte, ser un presupuesto social de forma que sientan que el ayuntamiento está a su lado y sin que nadie se nos quede atrás y, también, ser un presupuesto que conlleve la reactivación y el impulso de Andoain, ya que, no solo conseguiremos contrarrestar el efecto socioeconómico que está haciendo el Covid, sino también sentar la bases para la reactivación y el impulso del municipio.

“Zalantzarik gabe 2020an kudeatzea tokatzen zaigun egoera apartak aurrekarik gabeko pandemia batek lehentasunak berregokitzera eta erabakiak etengabe hartzea behartu gaitu. Zorionez gobernu talde hori 2019an sartu zenean udalaren finantziario egoera onetik abiatu ginen eta hori esan beharra dugu eta 2020an egindako kudeaketa zuzen eta arduratsuari esker, dirubilketa jeitsiera garrantzitsuari aurre egin



ahal izan diogu eta dirusarrerak murriztu egin dira.

“Sin duda, todos sabemos que el Covid19, la pandemia, en este 2020 es una situación nueva a la que nunca nos habíamos enfrentado y nos ha obligado, lógicamente, a tener que readaptar nuestras prioridades y tener que tomar decisiones continuas para ir cambiando de escenario. Afortunadamente, cuando este equipo de gobierno entró en 2019, partíamos de una escena financiera del ayuntamiento buena y también, lógicamente, así lo queremos reconocer y, la gestión prudente y responsable a lo largo de 2020 nos ha permitido hacer frente a la importante bajada recaudatoria que hemos tenido y por consiguiente a la disminución de ingresos.

“Zailtasunak, zailtasun, gobernu talde hau, gai izan da kalitatezko zerbitzu publikoei eusteko, behar handienaren ondoan egon gara eta, sail guztietako ekitza guztiak aktiboak mantentzea lortu dugu. Aurrekontua izateak aukera emango digu, noski, 2021 honetan gauzatu nahi ditugun proiektuen eta ihardueren zerrenda luzea martxan jartzeko,., Pandemian atzean utzi ahal izateko proiektuak lizitzatzen, esleitzen eta gauzatzen hasteko gaitasun ekonomikoa izango dugu. Andoainek behar dituen aurrekontuak direla uste dugu, gure herriaren aurrerabidea bultzatu, suspertu eta egonkortasuna ekartzea erronka duten aurrekontu sozialak.

“Pese a las dificultades, este equipo de gobierno ha sido capaz de mantener unos servicios públicos de calidad. Hemos estado al lado de quien más lo necesita y hemos conseguido mantener activa la totalidad de acción de todos los departamentos. Tener presupuestos, lógicamente, nos va a permitir poner en marcha la extensa lista de proyectos y actuaciones que queremos llevar a cabo a lo largo de 2021. Nos permitirá tener capacidad económica para poder comenzar a licitar, adjudicar y ejecutar proyectos que nos permitan dejar atrás esta pandemia. Consideramos que son los presupuestos que necesita Andoain, unos presupuestos sociales, cuyo reto es aportar estabilidad, reactivar e impulsar el progreso de nuestro pueblo. Mila esker.”

Jarraian, Izagirre andreak EAJ/PNVudal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Gaur onartzeraz ekarri ditugun aurrekontuak arduraz eta herritarrei begira egindako aurrekontuak dira. Pandemia egoera batean murgildura pasa dugu 2020. urtea eta, honek, aurreikusita genituen inbertsio epeak eta planak egokitzera behartu gaitu. Gobernu talde honi arduraz eta kontrarrelojean denboraren baldintzapean erabakiak hartzea tokatu zitzaigun. Kudeaketa zorrotza aurrera eramatea erabaki genuen, nahiz eta horregatik hainbat kritika jaso.

“Gaitasun horrek, ahalbidetu digu urte osoan zehar maniobrarako margena izatea, behar zen garaian dirulaguntza partidak mahaigaineratzea, beharrezkoak izan diren inbertsioak egitea edo ezohiko gastuari aurre egitea. Hau da, garbiketa eta desinfekzioaren kasuan, adibidez, %20ko igoera izan duen zerbitzua. Guzti hori dirusarreraren jeitsierari ere aurre egiten eta zerbitzu publikoak mantenduz egin dugu. Egoera honetara iritsi gara 2021eko aurrekontu proposamena osatzera eta gobernu taldearen irizpide berdina mantentzen da gaur onarpenerako aurkeztu ditugun aurrekontuetan.

“Covidaren aurrean erresistentzia egitetik errektibazioara pasa behar dugu. Jasotako kolpeari eusteko berriro ere zutik jartzera. Etorkizuna eraikitzea, inbertsio berriak sustatuz egoera sozioekonomikoa dinamizatzea. Sinergia ekonomiko kolektibo positiboak martxan ipintzea. Erresistentziatik errektibazioa esan dudana bezala.

“Lainez andreak aipatu ditu inbertsio nagusienetakoak, nik ez ditut errektikatuko, baino, bai, aipatu nahi dudala Kultura sailatik egiten den apustu zintzoa kultura eta programazioa mantentzeko, apustu handia egiten ari gara eta horretan jarraituko dugu.

“Enplegu eta Sustapen Ekonomiko arloan esan behar dut, nahiz eta Covidari aurre egiteko 100.000 euroko partida bat ezarri, Salkin elkarteari laguntza edo aholkularitza teknikoa emateko 22.000 eurotako partida bat aurreikusi dugula. Honekin eta urtero Salkinekin sinatzen dugun hitzarmena 8.000 euroko hitzarmena, non jasotzen den Salkineko urteko aktibitateak, dinamizazioarako, bono kanpainarako eta guzti hori, gehitzen zaizkio 4.000 euro lokal berriaren alokairurako. Guzti horrekin bertako komertzioa sustatu, indartu eta aurrera egin dezala lagundu nahi da.

“Gazteriaren dinamizazioarako, Lainez andreak komentatu duen bezala, plegu berria atera behar da aurrean, baina aipatu behar dut, baita ere, ireki dugula gaur egun 10 euroko partida bat, baina gerakinaren



zenbatekoa zein den jakiten denean, 260.000 euroko dirukopurua bideratuko dugula Belabiko Ludoteka martxan ipintzeko.

“Zerbitzu sailari begira, azpimarratu behar dut, 2020. urtean garbiketa eta desinfekzioarako egin den esfortzua, egin den indartze lan hori eta horretaz gain, esan behar dut, ez bakarrik udal eraikinak eta hauen desinfekzioarako, baizik eta, baita ere, kalegarbiketan, kale garbiketa ere indartu egin dugu, bi pertsona gehiago kontratatuko dira 2021. urterako, karro berriak erosi ditugu langileak modu eroso batean lan egin dezaten eta beraiekin elkarlanean nolabaite zerbitzua egonkortu egin nahi dugu eta indartu.

“Azkenik, zerbitzu saileko erronkarik nagusia izango litzateke Illarramendin erakitzea pabilioio bat. Bertan, Zerbitzu saila, Kalegarbitzaileen Brigada eta Lorazaintzako Brigada leku berean elkartuko dituen pabilioio bat izango da eta horretarako, behin gerakina jakiten dugunean, 150.000 eurotako partida bat aurreikusten da, aurreproiektua, exekuzio proiektua aurrera eramateko, modu xumean eta Lainez andreak aipatu duenari gehituz haxe da esan behar nuena. Eskerrik asko.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta, ongi etorria Huitzi jauna, zorte onena opa dizugu ibilbide honetan. Gaur aurkezten diren aurrekontu hauek 2020. urtean aurkeztu ziren aurrekontu berbera direla esan genezake. Aurrekontu hauek, partiden batuketa bat eginda daude osatuak, baina, ez dute norabide bat markatzen. Iazko aurrekontu berdina dira, izan ere, iazko aurrekontuak ez ziren exekutatu. Egia da pandemia bat gertatu dela. Inoiz, bizi izan dugun pandemia handiena eta Euskal Herriko nahiz munduko erakunde publiko guztiak hankaz gora jarri dituen, baina, hala ere, 2020. urteko aurrekontuen eztabaidan esan genuen, aurrekontuek norabidea eta lehentasunak markatu behar zituztela eta, 10 euroko partidak irekitzeak ez zuela ezer bermatzen, intentzionalitatea bai, baina bermerik ez eta, horrela izan da, 2020ko urtarrilean 10 euroko partidak zirenak 2021. urteko aurrekontuan ere, 10 euroekin ageri zaizkigu.

“Covid19a ez da joan. Urte gogorra izatea aurreikusten da gainera, beraz, zein berme dago aurten garatuko direla jakiteko? 2021. urteko aurrekontu hau egina dagoen bezala, ez zaigu gustatzen, 2020. urtekoa gustokoa ez genuen bezala. Duela urtebete proposamen bat egin genuen, inbertsio estrategikoak adosteko, akordiorik ez zen izan, baina, hemen, aurrekontuetan, abstentzioa eman genuen.

“Elkarrizketa eta elkarlana sustatzeko eskaintza gisa eman genuen abstentzioa, baina, zer jaso genuen trukean? Zer nolako elkarlana eta elkarrizketa sustatu du udal gobernuak Andoingo lehen indar politikoarekin? Eskasa. Departamentu eta zinegotzi zehatz batzuk kenduta, ia ezer ez.

“2021. urteko aurrekontu proposamena negoziatzeko borondate osoarekin ekin genion. Udal gobernuak ekarpenak egiteko jarritako epeak errespetatu eta proposamen bat egin genuen. Gure proposamena ez da 500.000 eurotara iritsi eta, argi eta garbi, agintaldi osoan zehar egiten ari garen moduan, Andoingo lehentasunak finkatzen saiatu gara. Udal gobernuaren erantzuna oso etsigarria suertatu zaigu. Hasiera batean proposamen bat egin, guk ez nahikotzat jo genuena eta akordioa errazteko gure proposamenaren eskaera jeitsi genuenean oraindik eta, eskaintza baxuago batetik erantzun zitzaigun.

“Errestasun guztiak eman ditugu, ez dugu eztabaidarik planteatu, nondik kendu edo nondik ez, ez gara horretan tematu eta, hala ere, udal gobernuari bertigoa eman dio EH Bildurekin akordioa egiteak.

“Udal gobernu honek, legalki eta politikoki guztiz legitimoa diren gehiengoak ditu eta egia bada ere, ez duela EH Bilduren beharrik, sozialki EH Bilduk duen indarra bizkar ematea ez dugu uste erabaki onena denik, hori dela eta, gure proposamenak zuzenketa partzial modura aurkezten ditugu, orain arte esan bezala hiru ardatz markatu ditugu, Andoingo herriarentzat estrategikoak diren inbertsioak berrarrhartzeara, espazio publikoak hobetzen jarraitzean eta politika sozialetan sakontzea.

“Inbertsioa estrategikoak hauek izango lirateke. Aurreko agintaldian ur hornidura sarea eraberritzen hasi zen, proiektuak ireki eta exekutatu batetik eta brigada bidez beste tramo batzuk eraberritu. Agintaldi honetan oraindik ez da proiektu berririk enkargatu eta egin den apurra brigadaren bidez egin da. Horregatik bi tramo berriren proiektuak idaztea proposatzen dugu, Etxeberrieta, Karrika eta Sorabillari dagokiona eta Goikoplaza eta La Salle etorbideari dagokiona.

“Juanita Alkaineko saneamendua, aurreko agintaldian egindako kudeaketa instituzionalari esker Sorabillakoa martxan jarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bi urtez egon zen Olagaingoa idazten.



Horrekin batera, espazio publikoak hobetzeko egin zen proiektuari esker ibai hertzeko paseo bat egitea erabaki zen. Proiektu hau, 2019ko uztailan onartu zen eta irailean bertan proposatu genuen kreditu aldaketa egitea eta esleipena martxan jartzea. Inork ulertzen ez dituen arrazoiengatik, ezta teknikariek ere, urte eta erdi luzatu da lan hau, martxan dago eta hori da inportanteena, baina, Juanita Alkaingoa ere egiten hasi behar da, zaila da, kudeaketa esberdinak beharko ditu, baina edozein erakundeetara jotzeko azterketa bat eskatuko digute eta guk azterketa hori aurten egitea eskatzen dugu.

“Illarramendi pabilioia. Herritar gisa egon nintzan pleno hartan Eusko Alderdi Jeltzaleak milioi bat euro jarri nahi zituen pabilio berri bat erosteko, orduan, nire ondoan daukadan Zulueta jaunak esan zuen ezetz, saiakera egin zela lortu eta gainera aukera berri bat irekitzen zela Illaramendiko garapenarekin eta lur horietan egin edo ez aztertu behar zela. Orduan EAJ udal taldeak ezetz bozkatu zuen eta bere proposamenari eutsi zion, gaur egun, badirudi adostasuna badago Illarramendin eraikitzearekin, ideia ona da, hain zuzen ere eta, egia hori, aurreko agintaldian Hirigintza zinegotzia zen Alberro jaunaren ideia zen. Pozten gara orain denok hori ikusteaz, proiektu hori martxan jartzea proposatzen dugu.

“Mimendiko harrapala. 2019n amaitua zegoen proiektu hau, iaz 10 euro jarri ziren eta ez da egin, aurten beste 10 euro, horrela ez da inoiz egingo. 145.000 euro jartzea proposatzen dugu eta bihar bertan esleipena martxan jartzea.

“Herriko merkataritza. PERCOA onartu zen eta ez da ezer garatu. Garrantzitsua da gai honi heltzea, beraz, digitalizaio proiektua martxan jartzeko 50.000 euro bideratzea proposatzen dugu.

“Espazio publikoei dagokionez, batetik, Goiburuko plaza, guztiontzat jakina da Goiburu auzoko plazaren egoera zein den eta plaza hori txukuntzea proposatzen dugu. Miranda pasealekua. Iaz proposatu genuen eta aurten egingo zela esan zenuten, udaberrirako irekita nahi badugu orain hasi behar dugu lanean, horretarako 30.000 euro jartzea proposatzen dugu. Guk, jadanik, baditugu ideia zehatz batzuk eta martxan jartzen hasten zaretenean helaraziko dizkizuegu.

“Politika Sozialei dagoenez harrakala digitala gero eta handiagoa da eta horren azterketa egitea proposatzen dugu, digitalizazioan andoaindarraren egoera zein den jakiteko. Haro digitelean gaude eta lehenago edo geroago heldu beharreko gai bat da eta, horregatik, egoeraren argazki zehatza zein den jakiteko azterketa bat egitea proposatzen dugu.

“Biolentzia matxistaren biktimentzat aholkularitza juridikoa. Hor ez dugu zehaztu nahi, badakigu biolentzia matxista pairatzen duten emakumeak, askotan, aholkularitza eta babes behar dutela eta, laguntza hori jasotzeko eta aholkularitza juridikoa bermatzeko partida hau txertatzea proposatzen dugu.

“Proposamen guzti hauek 500.000 eurotara iristen ez diren proposamenak dira. Udalak, 21 milioiko aurrekontu bat onartzera doa eta kutxan, gerakinean, milioi batzuk egotea aurreikusten dugu eta, gure ustez, hauek adostea, gutxieneko izan beharko luke eta negoziaketetan ezetz esan zaigunez, zuzenketa moduan aurkezten digutu.

“Badakigu esango gaituzuela ezin direla ikutu guk esandako partidak, baina, ez gara maretzeko soilik balio duten eztabaidetan sartuko. Gure ustez, dirusarrera batzuk igo daitezke, dirusarrerak estimazioak direla eta aurrekariak ikusita eta teknikariek egonda, guk proposatzen dugun 120.000 euroko igoera erreala izan daiteke, hala ere, kontuan izan behar dugu aurrekontuaren exekuzioa ez dela inoiz %100koa izaten eta ondorioz, gure iritziz behintzat, ez da ezer arriskuan jartzen.

“Beste partida batzuk ere badira orain murriztu daitezkeenak eta urtean zehar ikusi daitezkeenak osatu edo ez. Uraren kontadoreena adibidez, aurreko urtean ere, 160.000 euro jarri ziren eta ez ziren erabili, orain berriro jartzen dira, gaur egun oraindik, iturkina ez dago kontratatua eta lehen azterketa oraindik ez dago eginga eta ez dago datarik ere. Gure ustez, bera etorri bitarte eta martxan jarri bitarte nahikoa izango litzateke 50.000 euroko partida batekin, ondoren beharrezkoa dela ikusiz gero gerakinetik hartu daiteke.

“Espalioen konponketa eta errepedeen asfaltzeari dagokionez ere, guk dakigula ez dago plan zehatzik eta plana zehaztu bitartean guk proposatutako partidarekin hasi gaitzke eta ondoren, beharra izenez gero gerakinetik osatu daiteke.

“Badira ere, beste batzuk, gure uste beharrezkoak ez direnak ere, Xakobeo murala adibidez, 20.000 euroko partida du eta gure ustez ez da lehentasunezkoa. Gure ustez, zaila da herritar bati esatea Miranda pasealekuan aisialdirako gunek bat sortzea baino inportanteagoa dela mural bat egitea, guk behintzat, ez



diogu zentzurik ikusten. Zer esanik ez, gabonetako argiekin, murriztea proposatzen dugu. Basteroko programazioaren komunikazioa sari sozialetan. Ez da posible pandemia erdian, udal gobernuak komunikazioan erakutsi dituen gabeziekin, bai mamian eta bai euskarrietan, hori izatea lehentasuna. Gure ustez, hori ez da kultura sustatzea, hori beste gauza bat da. Guzti horregatik, gure zuzenketak onartzea eskatzen dizuegu, Andoain herriarentzat aurrekontuak hobek izango direlako horrela eta udal gobernuaren jarduna ere hobetuko egingo duelako gure ustez.”

Jarraian, Santano andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nosotros, la verdad, hemos sido bastante fáciles porque hemos sido bastante modestos en nuestras peticiones, un poco, la verdad, por el año tan difícil que llevamos y por la situación que hay, no hemos querido ser la piedra en la rueda. El año pasado votamos en contra, este año, la verdad, son parecidos, este año hemos decidido por la situación, dejar hacer debido a la situación, pero, bueno, un poco también que se tengan en cuenta nuestras peticiones.

“Nuestras peticiones siempre van a ser la defensa de la escuela pública y es por lo que hemos pedido que se duplicara la cantidad que tenían para obras en 25.000 euros, es muy modesta la cantidad pero, vamos a seguir dando vara y luchando para que la escuela pública y lo público esté bien subvencionado por las instituciones.

“Vamos a votar a favor porque pensamos que vamos en el buen camino, que, poco a poco, que de golpe no vamos a conseguir todo, pero que poco a poco vamos a ir viendo. Nuestro grupo siempre está a favor de las energías renovables, de las energías verdes, por lo que pedimos 25.000 euros más para el estudio de viabilidad y coste de la implantación de placas fotovoltaicas en los edificios municipales, al objeto de fomentar su autosuficiencia energética y nosotros lo que venimos pidiendo es que haya un gasto ingente en energía municipal y lo que queremos es que se llegue a un punto en el que todos los edificios municipales sean autosuficientes con la energía que ellos mismo produzcan, mediante paneles solares o lo que sea.

“Luego, el discurso que nos ha hecho la Sra. Lainez, pues me suena muy podemita, lo de la gente del centro y todo, entonces esperamos que sea así. Si que es verdad que también pedíamos que se dotara el pabellón de Illaramendi, todo esto será a cuenta del remanente, que por supuesto nos fiamos, sabemos que sera, también, aunque no está aquí, estamos pendientes también y muy encima de que se subvencione toda la pública que hay en el pueblo, que se ha subvencionado hasta ahora y la que no, también hay un compromiso de estudio que nos convence y bueno, en cuanto a las enmiendas que presenta el grupo municipal EH Bildu, hay muchas que también nosotros compartimos y por lo tanto apoyaremos alguna de ellas y, votaremos a los propuestos a favor y por lo tanto serán unos presupuestos mejores.

“Nada más que decir. Este año intentaremos, creemos que con el Covid no será un año bueno y, también queremos hacer mención de la situación que encontró el equipo de gobierno muy saneada que ha dado un gran margen de maniobra. Vamos a decir que ha sido una aportación de quienes estuvieron, evidentemente, que es de agradecer y vamos a votar a favor.”

Berriero ere, Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko.:

“Voy a ir contestando en nombre del grupo municipal socialista a algunas de las cosas que se han dicho aquí. En primer lugar, voy a dirigirme al portavoz de EH Bildu que hablaba de que no se han ejecutado muchos de compromisos adoptados en el 2020 y sobre que garantías había de que este año se vayan a ejecutar. Creo que, como hemos dicho en la primera intervención, sin duda, se pusieron esas partidas con toda la intención por parte del equipo de gobierno de desarrollarlas a lo largo del 2020.

“El presupuesto, como todos ustedes saben, se aprobó también en enero del 2020 cuando todavía nada hacía preveer la que se nos venía encima y el 14 de marzo toda la situación cambió cuando se empiezan a tomar ya todas la medidas importantes en torno al Covid, aún así, por entrar en detalle, tampoco es cierto y se aleja bastante de la realidad, decir que no se han hecho ninguna de esas partidas de 10 euros, muchas de ellas si que se han llevado a cabo, como pueden ser las viviendas y los locales municipales que se han renovado a lo largo del año, como pueden ser un montón de obras que se han hecho en diferentes edificios municipales que hacían falta, como limpieza de canalones, tejados, pintura,



filtraciones que había, la caseta de acceso al polideportivo que era necesaria.

“En la medida que hemos podido hemos acometido algunas de estas inversiones, lógicamente tenemos que reconocer que ha sido un año muy complicado y que en ese sentido hemos hecho un ejercicio de responsabilidad y tampoco se nos comunicó que Diputación también, el dinero que daba trimestralmente a los ayuntamientos iba a bajar considerablemente, que iban a ser 2.115.000 euros menos que para un ayuntamiento como puede ser el Andoain implica una bajada muy importante de recursos, por no hablar de que lógicamente en cuanto a tasas e impuestos, también ha habido exenciones para bajarlos y la ayuda de 600.000 euros que también desde el primer momento se quiso poner machar para tratar de ayudar a paliar algunas de las situaciones que se estaban viviendo.

“Desde Servicios Sociales también se han ampliado las partidas para tratar de ayudar a toda la ciudadanía porque todos somos conscientes de que en estos últimos meses la situación de muchas familias se ha ido complicando, incluso en algunos casos de familias que hasta hace 4 meses no tenían ningún problema pero que actualmente los dos miembros principales no tienen ningún ingreso y como consecuencia pues lógicamente las situaciones se han complicado muchísimo.

“Garantías para que se cumplan a lo largo de 2021. Decir que desde este equipo de gobierno se ha intentado dárseles y, desde luego, les propusimos hacer un documento y coger un compromiso, lo mismo que se ha hecho con Elkarrekin Podemos, en el que luego me centraré. A EH Bildu se le propuso ir un poco en esa misma línea y partiendo de la solicitud que habían hecho ustedes que se centraba en 413.000 euros, desde este equipo de gobierno se vieron un poco los puntos en común sobre aquellos proyectos que considerábamos más importantes y nosotros, que bueno, en esa línea fuimos y consideramos que se podía llegar a un acuerdo, entre ellos quiero destacar, por un lado la red de aguas de Karrika, Sorabilla y Leizotz, también el pabellón de servicios en Illarramendi que se ha citado, la rampa de Mimendi, también la ayuda jurídica para de violencia machista y el proyecto de digitalización de cara al comercio. Con todo esto, nosotros les trasladamos que estábamos dispuestos a aceptar un compromiso de 278.000 euros que, frente a sus 413.000 euros, llegaba a implicar un 67% de su petición y con ese sentido estábamos dispuestos a firmar un documento conforme conociéramos el remanente de abril, lógicamente en el primer momento ya, se incluyera en el modificativo de créditos para su inclusión en los presupuestos, porque, como se ha dicho aquí, esos presupuestos están ajustados a la realidad económica que vive el ayuntamiento y algunas de las partidas que ustedes citan ahora para poder reducir el importe, pues en algunos casos, es verdad que estamos empezando pero ya tienen asignadas un destino y se sabe que no se pueden reducir. Lo mismo que ustedes proponen algunos aumentos en algunas de las partidas de ingresos que, efectivamente, son estimaciones, pero tienen que ser estimaciones lo más reales y cautas posibles. En ese sentido tenemos que ser correctos e intentar que la estimación sea lo más ajustada y lo más real que sabemos vamos a tener, porque podemos asumir que vamos a aumentar todo lo queramos en el Impuesto de Actividad Económicas, pero tenemos que ser conscientes de que la situación socioeconómica va a ser complicada en este año 2021, con lo cual no se prevee que se vayan a poder abrir muchísimos negocios, empresas, se pueden subir hasta cierto punto pero tenemos que ser realistas y ajustados en ese sentido.

“En ese sentido les trasladamos la primera propuesta que nos hicieron y cuando dice que la segunda vez, bajamos el importe, no es que lo bajáramos, es que una de las partidas que ustedes mismos renunciaron una vez explicada pues no tenía el fin que ustedes planteaban y, no solo no lo bajamos, en la propuesta nuestra subimos 5.000 euros más, pues era eso lo que suponía quitando esa partida.

“Con lo cual, la propuesta que este equipo de gobierno les trasladó era de 268.000 euros frente a los 413.000 euros que planteaban ustedes, con lo cual, estábamos dispuestos a firmar un 65% de su demanda, con lo cual, creo que intención por parte nuestra a la hora de negociar y, efectivamente, de compartir alguno de los proyectos que se hablaban, hemos tenido.

“No quiero entrar en alguna de las otras cuestiones que se han dicho, porque, efectivamente, la comunicación del equipo de gobierno puede gustar más o puede gustar menos, pero lo que nos parece injusto es decir que el equipo de gobierno no ha estado comunicando en tiempos de Covid, porque creemos que si algo hemos estado haciendo es, sobre todo, en las fases en las que ha habido más casos y más medidas, pues prácticamente, marzo, abril, mayo, sacábamos una nota de prensa mínimo, incluso más



al día, para comunicar y para hacer y a lo largo del resto del año conforme ha sido necesario o ha habido cualquier cuestión, de hecho incluso se nos decía por parte de alguna ciudadanía, que es verdad que estábamos informando y eso siempre depende del prisma con el que se quiera ver el vaso, se puede ver lleno o medio vacío.

“Respecto a la intervención de Elkarrekin Podemos, agradecerles su predisposición a negociar con nosotros y, como bien ha dicho su portavoz, consideramos que este año precisamente es un año en el que nos hubiera gustado estar todos los partidos de acuerdo, porque, precisamente, es la mejor manera que podemos tener para hacer todos frente a la Covid19 y, en ese sentido, lógicamente, desde el partido socialista también vamos a tratar de reforzar lo público, como bien ha dicho usted Sra. Santano y, lógicamente, nosotros también somos izquierda, con lo cual se tiene que notar que tenemos muchos puntos en común y en ese sentido es lo normal.

“Por descontado, los otros 25.000 euros para las energías verdes estamos completamente de acuerdo en esa línea, de hecho, hoy mismo se ha presentado en la comisión de urbanismo que se ha celebrado esta mañana, el plan que tenemos para hacer a lo largo de todos este año, se quiere revisar precisamente por lo consumos, las potencias, bueno, muchísimas de las cuestiones que están se quieren hacer auditorias energéticas para saber hasta que punto que acciones tenemos que llevar a cabo, lógicamente, todo lo vamos a unir a las ODSes, al plan de acción climático, también al tema del plan de la agenda 2030. En esa línea, vamos a tener un amplio trabajo para ir realizando y estaremos encantados de contar con ustedes en nuestro camino. Muchas gracias.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNVko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Ongi etorria Huitzi jauna, lehenik eta behin. Hasi nahi dut Elkarrekin Podemos udal taldearen postura eskertuz, batez ere, nolabait pauso bat ematen dutelako zentzu horretan politika praktikoa egitea eta, nik uste dut, hori eskertzekoa dela.

“Efizientzia energetikoaren inguruan, aldaketa klimatikoaren inguruan, nolabait estrategia bat markatzen da, ez da honekin bukatzen, alderantziz, lehendabiziko hazia eta hemendik aurrera hazten joan behar dugun zerbait da, trasbertsala izan behar duena. Ez du balio esatea panel solarrak bai, baina gero gasoileko kotxe zaharrak mantenduko ditut edo lehioak ez ditut aldatuko, hau da, energia berriztagarriak, energia aurrezpena, aldaketa klimatikoa modu integralean aldatu behar da, beraz, alde horretatik bidelagun izango gara eta prest. Berdin hezkuntza eta zerbitzu publikoen alorreko indartze hori. Konstziente gara, modestoa izan arren, ez dela are inportanteagoa, eta keinu horrek berak, egoera honetan, EAJ udal taldearen aldetik eskertzea.

“Ez nuke nire rolo on hori eten nahi baino nahiko nituzke puntualizazio batzuk egin. Nik uste det, badirudi oso renkorosoa nahizela, aurreko legealdian izan genituen bi etapa eta Zuluetaengan zentralizatuko dut, Zulueta jauna zegoelako garai hartan mahaikide edo eta, lehenbiziko etapan oso ondo ematen ginen, bigarrengoan horrenbeste ez, baina, gogoratzen dut azken plenoan EAJk egin zuen sahiakera bat enmendakin partzialen bidez hobekuntza batzuk proposatuz eta, egia da, hobekuntza horiek zirela oso anbiziosoak eta gauza askotarako gastuak asko murrizten genituela, ingresoak puztu edo, betetzen genituela eta Zulueta jaunak berak esan zigun behin baino gehiagotan enmendakinak horrela planteatzea postureo bat zela, postureo bat egiten ari ginela eta, borondaretik ez genuela, hori niri grabatuta geratu zitzaidan. Ostras, postureoa? Bai, a ver nola ingresoak puztu genituen puzteagatikan, inolako logikarik gabe eta ez dakit zer, eta ikusi nola diren gauzak, urte batzuk beranduago nik uste dela, denok daukagun, politikara dedikatzen garen guztiok dugun sindromea, oposizioan egon edo agintean egon txaketa aldatzen dugula, baina, urte batzuk beranduago gaude posizio inbertidoan, ari gara planteatzen inbertsio puztea, Covidaren testuinguru honetan gainera, jakinda zer beherakada egon den. Iruditzen zait eskatzen badugu zorrotasun hori, seriotasun hori eta zintzotasun hori, uste dut ere, momentu honetan ere aplikatu beharko genuke logika berdin hori.

“Ez dut esaten ez direnik enmendakin zintzoak, seguraski hala izango dira, baina gobernu talde honek zin dagizuet esfortzu berezia egin duela ingreso guzti horiek ahal zen gehiena puztu, baina errealismo baten barruan, ezin dugu, azken hilabetetako bilakaerak aztertzen baditugu, tendentziak aztertzen badigutu, puztu puzteagatik, ondoren aurrekontu fiktizio sortzea eta, hori kritikatu izan dugu behin eta



behin. Aurrekontua izan behar du ahalik eta realisteena. Exekututzen ez den aurrekontu bat aurrekontu txarra da eta, errealtatetik at dagoen aurrekontu bat ere aurrekontu txarra da, beraz, gure sahiakera izan den ahalik eta errealista den aurrekontua plasmaztea. Baina gogoan dut postuarearen asunto hori eta ez naiz orain esaten ari postuareoa denik, baina, bai kritika hori eta ni kontraesanetan erortzen naizen pertsona naiz, baina, kasu honetan kontraesan bat nabarmena badago hartatik hona.

“Gero, iazko aurrekontuen berdinak direla. Niri baieztapen horrek mindu egin nau pixka bat. Gogoan dut iaz esan zenigutela ezin aterrizaturik genbiltzala, gogoan dut gainera, folleto edo planfetu hura abioneta batekin ateratzen ginen gobernu talde hau, nolabait ere ezin lurra ikutu eta, aurrekontu haiek eta inposaketaren bidez eta aldeakartasunetik gobernatzen ari den gobernu talde honen aurrekontuak berdinak dira antza, alegia, ezjakintasunean galduta genbiltzanean eta orain, ordeno y mando ari ganean, unilateralki gobernatzen, aurrekontu proposamen berdina ekartzen dugu antza. Hori hala ulertzen dut? Hori ere kontraesana iruditzen zait, baina antza ez dugu asko ikasi, baina bueno, hurrengo urterako ia hobetzen dugun, sahiatuko gara eta uste dut modu zintzoenean ere saiatuko garela datorren urterako hobetzen.

“Gero, betiko txipa, ez dizkidazu nire proposamenak onartu, beraz, bizkarra eman didazu. Ba sentitzen dut, gobernu talde hau zurekin elkartu da fisikoki, telematikoki eta, saiakera zintzo bat egin dugu hitz egiteko, elkarlanerako eta, Lainez andreak esan duen bezala, proposamen zehatz bat egiteko. Izango da kaxkarra, izango erdi purdikoa, izango da oso anbizioa edo, ez gaituena hase...hori ulertu dezaket, baina esatea bizkarra eman dizuegula neri gogorra iruditzen zait. Nik behintzat ez dut horrela ulertu eta nik nahiko nuke matizatzea guk ez diogula inori bizkarra eman nahi izan.

“Gero, betikora etorriko naiz, baina egia da, partida askotan esaten da proiektu bat redaktatuko dela eta proiektu horietako asko eta asko sartuta daude, aurrekontu proiektua edo aurreikuspen horiek, Alkate andreak esan duen bezala, inkorporatuta daude, beraz, ez dut ulertzen, ez dut ulertzen eta, gero betikoa da, zortzi urtetan egin ez ditugun gauza guztiak nahi ditugu egitea Covidaren urte honetan, aquí y ahora eta, jo, jo, barkatu, gu bastante txapuzeroak edo kaxkarrak izango gara, baina ahal duguna egiten dugu, ez pentsatu zuek zortzi urtetan egin izan dituzuen gauza guzti horiek, guk horren azkar urte betean, Covid izena duen virus batekin osatuko ditugunik, hori erreflexio bezala eta gero, umore pixka bat jartzeko, ba ditut koادرilan pare bat lagun esaten didatenak, zer egin duzue Mercadona horrekin, Mercadona jarri dezue. Aurrerantzean Mercadonataz galdetzen didatenean esango diet, ez, ez, Mercadona guk ez dugu jarri, Agustin Alberro jaunak jarri du, porque, gaur hemen esan duzuen bezala, Illarramendiko pabiloia Agustin Alberrok asmatutako proiektu bat da. Barkatu. Illarramendiko proiektu guzti hori, aho batez, hemen gauden alderdi politiko guztiak, urte luzez landutako proiektu bat da, prozesu ezberdinak pasatu dituena, aldaketa desberdinak izan dituena, Diputazioarekin aldaketak jaso dituena eta zuek ulertzen baduzue zuena dela, hala dela, oso ondo, onartuko dugu zuen proiektua gauzatuko dugula, baina ojo, koherentzia hori denatarako izan, Mercadonarako ere bai.

“Uren kontadorearena. Nik uste dut digitalizazioa eta efizientzia energetikoa direla guretzat prioritate bat eta kontadoreen digitalizazioa sartuta dago oinarri politiko bat bezala, alegia, ez dugu nahi martxoan diru faltan ibili, nahi dugu hori aktibatu, prestatzen hasi, lan handia dago hor bideratuta eta konpromezu politiko bat da. Bai, zergatik ez.

“Komunikazioarena, beste behin ere. Orain dela urte eta erdi kexatzen ginen ez genuela komunikatzen. Oso okerrak ginela, beti berandu gentozela. Orain dela aste gutxi irakurri ditut txio batzuk esanez, eskerrak Aiurri dugun Andoainen komunikatzeko. Zorionez udaletxe bezala hori eman behar dut edo badaukat Osakidetza horren berri ematen duena egunero, zein da informazioaren iturria edo ez, dena den, berdina, ez dakit zer pentsatu, orain dela urtebete eskatzen zeniguten gure txapuz eta komunikatzeko era traketsa hobetzeko radikalmente eta baliabideak, teknikoak eta pertsonalak horretara bideratzeko eta oker ez banago idatzi bat dago sartuta eta orain, alderantzizkoa, orain gehiegi egiten dugula antza, autobonbo egiten dugula edo horrelako zerbait.

“Niretzat, Zulueta jauna, esango dizut kasu honetan Kulturataz hasi zarete eta nik uste dut pandemia garai honetan kulturak eduki duela nolabaiteko eta, Ruiz andrearen baimenarekin, Kultura izan da botikabat edo, zuk esaten duzun bezala, antidoto moduko bat, Covidaren garai ilun hauetan herritar asko



eta asko larunbat arratsalde bat, ostiral arratsalde bat Basterora joan eta kontzertu bat ikusi ahal izatea edo udalaren Ondarretako patioan edo, nik uste dut izan dela posizionamendu politiko bat, baina, sinetsi dugulako sortu behar zela dinamika kultural bat, jendeak behar zuena, behar zutela nolabaiteko antidoto bat eta antidoto hori Covid garai honetan, etxean enkaustratuta gaudenean eta ez daukagunean kalean lasai eta aske ibiltzeko modua ba kanal digitaletan indartzea berdin zait, prentsan, twitterren edo ba garrantzitsua eta herritarrarengana iritsi behar da eta hori autobonbo baldin bada, ados, guk ulertzen dugu dela herritarrengana iristeko beste kanal bat.

“Saneamenduari buruz. Saneamendurako, Juanita Alkain, jartzen ditugu 30.000 euro, zertarako da?”

Alvarez jaunak erantzuten du: “Azterketa abiaratzeko.”

Jarraitzen du Goenaga jaunak: “Azterketa zerena?”

Alvarez jaunak: “Zeintzul diren aukerak aztertzeko.”

Goenaga jaunak dio: “Beraz, EH Bilduk, galdera erretorikoa da, 30.000 euroekin zer azterketa egin nahi du EH Bilduk? Alegia, alternatibean azterketa egiteko 30.000 euro. Gu ziur gaude ezetz, gehiago dela, beraz, Illarramendiko pabeloiari buruz, Izagirre andereak esan du, Illarramendiko proiektuaren erredakzioak 150.000 euro balio ditu eta hemen dago, 50.000 euro jartzea zertarako balio dit hemendik hilabete batzura, berriro ere, modifikatibo kredito bat egin behar badut igotzeko 50.000tik 150.000ra, zertarako balio dit, teknikoki berdina da orain 10 euroko partida izan eta gero 150.000 betetzea, orain, 50.000 jartzea eta ondoren 150.000 jarri.”

“Nik uste dut izan gaitezen zintzoagoak kopuruen aldetik hitz egiten dugunean. Bukatzeko, zeren pelma bat izaten ari naiz, esaldi bat: “Primero es lo urgente y luego lo importante eta, nik uste dut urgentzia kasu honetan markatzen du emergentziak eta urgentzia hori erantzuten egon gara, hobeto, okerro, egon gara eta, nik uste dut ere, garaia dela urgentetik, inportatera pasatzeko eta prioridade horiek gutxinaka-gutxinaka garatzen, desarrollatzen eta kontsentzu honetara batu diren bidelagun berriek esker ona eta gainerakoei, erronka asumitzen dugu guretzako datorren urtean posible dugun zabaltzea kontsentzu hau.”

Alvarez jaunak, EH Bilduko eledunak, hartu du berriko hitza eta honakoa esan du:

“Asko aipatu duzu aurreko legealdia eta Zulueta jaunak, berak nahi badu, erantzungo dizu ondoren, baina, nik gaurkora bueltatuta, aurrekontu hauetaz buruz eta legealdi honi buruz ari garenez hitz egiten, guk esan dugu, 10 euroko partida pilo bat daudela eta guztiak ez dira egingo, gure ustez lehentasun batzuk finkatu behar dira eta guk lehentasun horiek finkatu ditugu. 50 partida badira 10 eurokoa eta 15 egingo badira, guk horien berri ez dugu eta guk diogu, gure ustez, hauek egin beharko liratekela. Horien artean bihar bertan egin hasi daitezkeenak.

“Hau da, ur kontadoreena, nahi izanez gero, bihar ezin dugu abian jarri zeren, iturginaren azterketaren data ere ez dakigu oraindik, ondoren egin behar da azterketa eta abar eta Mimendiko ranpa bihar bertan esleitu daiteke. Urgente, inportante, horretaz ari gara. Iturginarena bihar nahita ere ezin da egin. Hori da dioguna.

“Aurrekontuei buruz. Aurrekontu hauetan 21 milioi eurotik guri onartu zaiguna izan da zero. Nola onartuko ditugu 21 milioi aurrekontu batzuk bertan zero euro onartu direnean? Egia da ondoren esan zenutela, bueno, gerakinetik zuek proposatzen dituzuen 413.0000 eurotatik, 268.000 euro onartzeko prest gaude, baina, aurrekontu hauetan zero. Nola onartuko ditugu euro bakar bat onartzen ez dituzuen aurrekontu batzuk?”

“Asko hitz egin da, gauza orokorrak erantzuten ari naiz, gauza asko esan dira eta. Illaramendiri dagokionez, aurreko legegintzaldian ni ez nintzan, baina, nik esan nahi dut Illaramendi zerbitzuetako pabilioia egiteaz hori, Alberro jaunak Hirigintzako batzordean lehendabizikoz esan zuela esan dut, ez dut besterik esan, gaur egun guztiok bat egiten duguna. Ez dut besterik esan, zerbitzuetako pabeloia hor kokatzeaz, zeren, garai hartan asmoa Borda Berri poligonoan pabeloi bat erostea, gauzatu ez zena.

“Kulturari dagokionez, guk kultura ihardueren alde gaude, guk esaten duguna da, komunikazioan oreka bat egon behar duela, ez zaigu iruditzen orekatua aste buru berean, egun berean, Lainez andreak, herritarrei mezua whatppko audioi bidez bidaltzea eta Kulturako kontzertu baten komunikazioa izugarritzko montajearekin egitea, bideoekin eta abar. Gure iritziz, udal gobernuaren mezua orekatua izan



behar duela. Ari gara esanez udaleko departamentu guztien komunikazioa orekatua behar duela izan.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko.

“Voy a aclarar que vamos a votar a favor de alguna de las enmiendas, no se trata de los importes de las partidas, es un compromiso con que el planteamiento que se hace nos parece correcto.”

Alkate andreak hartu du hitza, eta honakoa adierazi du:

“Aclarar que alguna de las enmiendas ya está recogida en los presupuestos, como concepto. Por decir un ejemplo, ya está recogida en el presupuesto.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak, EH Bildu udal taldeak Mimendiko arrapalei dagokien enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako aldeko botoekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak Zerbitzuekoa pabilioia Illarramendi industrigunean egokitzeari dagokien enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako aldeko botoekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak Etxeberrieta, Karrika Sorabilla eta Goikoplaza, La Salle etorbidea ur hornidura sareari buruzko enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, EH Bildu udal taldeko aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak herriko merkataritza digitalizateari buruzko enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako aldeko botoekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak Miranda pasealekua aisialdi gune gisa egokitzeari dagokien enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, EH Bildu udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak Juanita Alkain plazako ur hornidura sareari buruzko enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, EH Bildu udal taldeko aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak indarkeria matxista biktimei aholkularitza juridikoa emateari buruzko enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako aldeko botoekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak Goiburu auzoko plaza eraberritzeari buruzkoa enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, EH Bildu udal taldeko aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak Andoingo arrakala digitalaren azterketa egiteari buruzko enmendakina bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako aldeko botoekin, ez da onartu.

Jarraian, Alkate andreak 2021/01/22 datako Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Irizpenemalearen proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu udal taldeko kontrako botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onestea 2021eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra, laburpena, kapituluka, honako hau da:



AURREKONTU PROPIOA

Dirusarrerak

ATALA CAPITULO	IZENA CONCEPTO	ZENBATEKOA IMPORTE
1	Zuzeneko zergak	4.470.500,00
2	Zeharkako zergak	615.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	4.846.240,00
4	Transferentzia arruntak	11.551.285,16
5	Ondarezko sarrerak	182.500,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	120.000,00
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	60.000,00
9	Pasibo finantzarioak	0,00
GUZTIRA		21.845.525,16 €

Gastuak/Estado de Gastos

ATALA CAPÍTULOS	IZENA DENOMINACIÓN	ZENBATEKOA IMPORTE
1	Pertsonal gastuak	7.826.972,47
2	Gastuak ondasun arrunt eta zer.	10.953.423,90
3	Finantza gastuak	42.000,00
4	Transferentzi arruntak	1.416.578,00
6	Inbertsio errealak	921.550,79
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Aktibo finantziarioak	60.000,00
9	Pasibo finantzarioak	625.000,00
GUZTIRA		21.845.525,16 €

2.- Aurrekontu Burutzapenerako Udal Araua onestea, kontuan izan da, arau horren 12. artikuluan aldez aurreko fiskalizazio mugatua ezartzen dela.

3.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jandaurrean jartzea, 15 eguneko epeaz. Epe horretan ohartarazpenik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko bilakatuko da, horren inguruko bestelako erabakirik hartu gabe.

4. Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa elkarteak 2020/01/19an aurkeztutako mozioa, Covid19 ondorioz jasandako egoera larria dela eta.

Lehendabizi, Santana andreak, Elkarrekin Podemos taldeko eledunak, hartu du hitza mozioa irakurtzeko:

“Covid 19aren ondorioz, Estatuko Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak agindutako ostalaritzaren itxierak dirala eta, ekonomiaren arlo hori jasaten ari den egoera larriari irtenbide egokia emateko neurriak har ditzaten eskatzeko udal mozio proposamena, Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa Plataformak eskatuta.

Arrazoen azalpena:

Urte honetako martxoaren 14an, lehenengo Eusko Jaurlaritzak eta egun berean estatuko gobernuburuak, ostalaritza isteko agindu eman zuten.

Maiatzaren 11n, deseskalatzeko 1.fasean, ostalaritza berriro irekitzeko baimena iritsi zen. Irekitzeko



baldintzak hain murriztuak izanik, ostalarien gehiengoek maiatzaren 25etik aurrera ireki zuen. Beraz, 71 egun itxita egon ziren gure negoziok.

Ekainaren 21ean alarma egoera altxa eta, pandemiaren bilakaera negatiboa zela eta, abuztuaren 17an murrizketa berriak etorri ziren eta gaueko aisia erabat itxi zen. Urriaren 25ean bigarren alarma egoera agindu zen eta azaroaren 6an bigarren itxiera iritsi zen.

Abenduaren 12an irekitzeko baimena izan genuen, ordutegi eta aforo murrizketa handiekin, 35 egun itxita egon ondoren. Baina ez genuen guztiok irekitzeko baimenik izan. Horrela, Arrasate, Ordizia eta Eibarrek itxita jarraitzen zuten.

Handik hiru egunetara, Beasain, Zaldibia eta Azpeitiako ostalaritzaren itxiera agindu zen. Abenduaren 18an, berriz, Segura eta Eskoriatzako ostalaritza itxi zen.

“Gaurko egunean, abenduak 31, Errezil, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Segura, Zaldibia, Arretxabaleta, Arrasate, Azpeitia, Beasain eta Ordiziakoostalaritzak itxita jarraitzen du.

Guztira, Gipuzkoako ostalariok gure negoziok itxita eduki ditugu 106 eta 125 egun artean, udalerrri bakoitzaren egoera epidemiologikoaren arabera. Gaueko ostalaritzak, berriz, 7 hilabetetik gora darama erabat itxita.

Eta itxita egondako epean ere, gure gastu finko guztiak ordaintzen jarraitu behar izan dugu: telefona, aholkularitza-gastuak, aseguruak, gastu informatikoak, gasa, argindarra, OHZ, zaborren eta terrazen tasak, alokairuak, maileguak, banketxe-gastuak, suhitzalgailuen mantenua, alarmen hileroko kuota, SGAE,

Egia da, tokian tokiko udalek lagundu digute, neurri ezberdinen bidez, gastu finko batzuk arintzen, terraza eta zabor tasak bolara batez kenduz, kontsumoa bizkortzeko bonuak ateraz, EPIetarako laguntza emanez, terrazen azalera handitzeko aldi baterako baimenak emanez....

Bestalde, lehenengo itxialdian, mutuan bidez, 666€ eta 1098€ arteko kopurua jaso genuen eta autonomoen kotizazioa kendu ziguten.

Bigarren itxialdian, irailaren 29ko 30/2020 Errege-Dekretuaren bidez, hilean 301.6€ eta

377e arteko kopurua jasotzeko eskubidea onartu zitzaigun (kotizazio minimoaren oinarriari dagokionaren %50 kasu batzuetan eta %40 beste batzuetan) itxialdiak irauten duen bitartean; era berean, ez digute kobratuko autonomoen kuotarik.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, aurrakusiak ditu 3000 eta 4500 € arteko laguntza zuzenak, eta ostalari gutxi batzuk dagoeneko jaso dituzte.

Alokairuak dituztenen egoera, berriz, jabe eta maizterren akordioen baitan geratu da.

“Maileguen kasuan, ostalari askok ordainketen urtebeteko atzerapena lortu dute.

Egiari zor, aitortu behar da administrazio ezberdinek ahaleginak egin dituztela gure egoera arintzeko; baina ez da NAHIKOA.

Faktura finko guztiak ordaindu ondoren, ikusi dugu jasotako laguntzekin ostalari gehienok EZ DUGULA LORTU GASTU FINKOEI AURRE EGITEA.

Horrez gain, familia asko eta asko ostalaritzatik bizi gara, eta 2020 urtearen herena baino gehiagoz geure bizitzarako gastuetarako dirusarrerarik gabe gelditu gara.

Gipuzkoako ostalari gehienok autonomo txikiak gara, lokal bat edo bi errentan edo jabetzan ditugu, baina ez dugu dirusarrerarik eguneroko bizitzako gastuei aurre egiteko.

Egoera horrek hainbat familia miseriara garamatza. Gure egoera animikoa ere desesperazioaren mugan aurkitzen da.

Ez dugu lan egiterik izan eta ezin izan dugu soldatarik eraman geure etxeetara.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, honako eskaera hauek Osoko Bilkurari aurkeztu nahi dizkiogu, onartuak izan daitezten:

1. Gipuzkoako ostalaritzaren egoeraren berri ematea Eudeli, Foru Aldundiari, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari.

2. Aipatutako erakundeei eskatzea, ostalariok bizi dugun egoera ekonomikoari irtenbidea ematearen, martxoaren 14az geroztik, atzeraeraginekin, Gipuzkoako ostalaritzako autonomoei hileroko gutxieneko soldata aitortzea eta berori bideratzeko beharrezko diren izapideak burutzea.”



Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNVko eledunak, hartu du hitza, udal gobernuko osatzen duten PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek aurkeztutako mozioa irakurtzeko, honakoa diolarik:

“Covid19ak eragindako pandemia egoera bizi dugu iazko martxotik. Pandemia honek gure egunerokotasuna hankaz gora jarri du eta aurrekaririk gabeko eragin sozio-ekonomikoa sortu du.

“Galera pertsonalez gain, jarduera ekonomikoa gogor kolpatua izan da, birusaren hedapena eteteke dekretaturiko itxialdiek, murrizketa neurriek, salerosketan izandako beherakadak edo kontsumoaren geldialdiak, sektore anitzak kaltetu ditu: autonomoak, enpresak, merkataritza eta ostalaritza, besteak beste.

COVIDaren eragin sozio-ekonomikoa leundu nahirik, eta aurre egiteko baliabide eta bitartekoak eskaintzeko helburuarekin, instituzio ezberdinek ahalegina egin dute, bakoitzak bere eskumenen baitan, behar gehien duten sektore eta pertsoneri laguntzeko.

Hala egin du Andoingo udalak, eta horretarako 600.000 eurotako partida bat aalbidetu da 2020an. Beteak beste 2 laguntza deialdi sustatu dira. Lehena maiatza/ekaina bitartean martxan ipini zena, Andoingo autonomo, merkatari eta ostalariei laguntza ematera zuzendu zen: 267 eskaera jaso ziren (hauetatik 170 merkatari eta ostalarientak).

Bigarren deialdia berriz, abendua/urtarrila bitartean ipini da martxan, eta kasu honetan aurreko sektoreez gain zabaldu egin da laguntza esparrua (industria, kulturaletara, edo elkarte gastronomikoetara). Bi kasuetan, dirulaguntza zuzenak izan dira, eta bigarren deialdian kontuan izan dira bai kolaken alokairuak nola langile kopuruak, ahalik eta modu proportzionalenean banatzeko.

Diru laguntza zuzenez gain, ogasuna eta diru-ibilketari eragiten dioten salbuespen erabakiak onartu dira, aplazamenduak eta erraztasunak eskainiz udal tsas eta zerga ezberdinetan. Azkenik, tokiko kontumoa sustatzeko 2 bono kanpaina abiatu dira, bata udara atarian, eta bestea udazkenean.

Honenbestez, erabat ulertzen eta elkarbanatzen dugu tokio ostalaritzaren ardura eta kezka, eta honakoa adierazten dugu:

Andoingo udalak konpromezua berresten du COVID19aren aurrean tokiko eragile sozioekonomikoak babesten jarraitzeko, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide eta neurriak bideratzeko.

2021eko aurrekontu proiektuan 100.000 eurotako diru partida aurreikusiko da, COVID19ak sortutako egoerari aurre egiten jarraitzeko, eta beharrezko balitz, aurrerago erremamentarekin osatzeko konpromezua hartzen da.

Andoingo udalak gainerako erakundeekin eta agenteekin elkarlanean jarraituko du COVID19ak sorturiko egoerari aurre egin ahal izateko.”

Jarraian, Zulueta jaunak, EH Bilduko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Jakina bada ere, Gipuzkoako ostalariak aurkeztutako mozioaren alde egingo dugu. Egia da hasi behar nuela hitzartzea beraiekiko animo hitzekin, babes hitzekin, baina azken orduetan, pixka bat gaiari buruz hitz egiteko beraiekin egindako solasaldietan konturatu gara, justu, une honetan, gutxiena behar dutena babez hitzak eta animo hitzak direla, batez ere, eragile politikoen aldetik. Uste dut beraien mozioa irakurrita eta beraiekin hitz egin ondoren, guztiok ulertzen dugu hau SOS bat dela, drama bat da herri honetan bizitzen ari garena, herri honetan esaten dudanean Andoainen eta Euskal Herrian ari naiz noski.

“Denok dakigu, gutako inork ez dugu horrelako egoera bat bizi, pandemia bat, hori aurrekontuetako eztabaidan horrela aitortu dugu. Guztia hankaz gora jarri du. Bizitzan eta historian sektore ekonomiko bati lan egitea debekatzen zaio eta guztiz lur jota utzi zaio eta kezkatu behar gaitu. Hemen gaudenak ez gara birologoak, epidemiologoak, ez dakigu gauz horietaz, ez gara jakintsuak, ez gara Jonan Fernández, esan nahi dut, hemen gaudenak gara herritar xumeak eta ez dakigu zein den irtenbidea, baina, badakigu sektore ekonomiko bat ezin dugu hiltzera kondenatu eta ezin da milaka familia elikatzen dituen sektore ekonomiko bat horrela tratatu, momentu honetan.

“Kriminalizazio bat badago. Beraien jardunean ematen dira kutxatzeak, ez beste lanpostuetan, guztiok dakigunean gobernuek horrela baimendu dutelako, jendea etxeetan kutxatzen dela baina tarbernak ixten



dira. Egoera nahiko gogorra da eta guk ez dugu ukatzen egoera epidemiologiko batean tabernak itxi behar direnik, ez dugu hori esaten inondik inora, lan egitea debekatzen zaionari eskutik heldu behar zaio eta lagundu egin behar zaio. Hori ez da gertatu. Matxoaren 14tik, espainiar gobernuak lehenbizi, itxiera dekretatu zenetik eta ondoren, Eusko Jaurlaritzak, tartean-tartean horrelako dekretuak egin dituenan, ez dira neurriko laguntzak eman. Orduan, beraiek planteatzen dute SOS bat, beharrezkoa bada itxiko dugu baina mesedez lagundu gaitzazue eta ez gaitzazue hiltzen utzi.

“Orduan, nik uste nuen bagenuela guztiok halako adostasun bat gaiaren inguruan, baina gaur 14:20 orduetan ikusi dugunean zuen mozio alternatiboa nahiko harrিতuta geratu gara, zeren, azkenean beraiek egiten dute interpelazio bat eta esaten diote Andoingo udalari, mesedez, laguntzen didazu gai honetan beste erakundeetara jotzen ea erreskate bat egiten diguten eta zuek erantzuten diezue esanez zer egin dezuten.

“Era kolokial batean erantzungo genizueke eta, norik galdetu dizuete zuek zer egin dezuten? Norbaitek galdetu dizue zuei esparru horretan? Zuei jendeak eskatu dizuetena, momentu honetan, lagundu gaitzazue beste erakundeetara jotzeko oinarritzko soldaba eman gaitzaten eskatuz.

“Zuek aldez, erantzuten duzue esanez hau egin dugu. Lehenengo deialdia, bigarren deialdia eta, diogu, hau ez du inork galdetu. Orduan, sartu gintezke gainera, leku batzuetan kendu dizkigute tasak eta abar. Hemen ez, proposatu dugu 2020ko tasei dagokionez, ezer ez. 2021koie dagokionez egin dezagun zerbait prespektiban, egin dezagun zerbait egoera ez da aldatuko edo agian bai.

“Galderak oso praktikoak dira, imaginatzen duzue zuek zuen etxean udalak ura mozten dizuetela eta gainera uraren erreziboa pasatzen dizuetela. Ba hori da hemen gertatzen ari dena edo, norbaitek botatzen dizula zure etxetik eta IBIa kobratzen dizutela. Ba, gauza horiek, gaur gaurkoz gertatzen ari dira. Gaur gaurkoz gertatzen ari dira eta guk diogu, zer egin dute ostalari hauek hain gaizki tratatuak izateko? Horretarako erantzunak baditugu, gure aurpegia zuritzeaz gain eta hemen aurkezten den mozio hau aurkezteaz gain, norbaitek badau horren erantzuna? Guk ez dugu. Orduan, uste dut mozio hau onartu behar dela, ez dakit herri honek baduen muskulo finantziorik beraiek eskatzen duten guzti horri erantzuteko. Martxotik gutxieneko soldata langile guztientzat, aztertu behar da, eta ezin da erantzun ez da gure erantzunkizuna, guk egin dugu ahal duguna. Guztiok dakigu udalek ezin dutela sektore ekonomiko hori sostengatu, hori guztiok dakigu eta beraiek ere badakite, udal batzuk iritsi dira 1.000 eurotara, 800 eurotara, baina norbaitek heldu beharko dio arazoari sektore hori bizirik mantendu behar bada.

“Bukatzeko. Hau beste sektore ekonomikorekin ez genuke onartuko, esan nahi dut, hau beste sektore ekonomiko bateri gertatzen zaio, banakari gertatu zitzaion eta erreskatatu zitzaioen, beste sektore ekonomiko bateri ez zaio egiten eta gure galdera da, zergatik sektore ekonomiko honi?. Guk babestuko dugu, noski aurkeztutakoa ez da ezta mozio alternatiboa, dokumentu honen kontra bozkatuko dugu eta mesedez jarri gaitzen guztiok norabide berean eta egoera dramatiko hau behar bezala laguntzeko bitartekoak eskatzeko.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podems udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esareko:

“Poco tengo ya que decir. En realidad los hosteleros nos están pidiendo que instemos, no nos están pidiendo nada material para ellos, que instemos por ellos a otras instancias que realmente pueden hacer algo. Lo de la moción no la había leído hasta hace poco, cuando hemos entrado. Para mí, como vulgarmente se dice, a donde vas manzanas traigo.

“Ellos están pidiendo una instancia y aquí se está diciendo lo que se ha hecho y lo que se puede hacer con la dotación que se pone, que está muy bien, no hay falta de voluntad, lo que yo pienso es que desde el ayuntamiento no se pueden cubrir sus necesidades y de hecho es por eso que solicitan que se inste a insituciones que si pueden hacer algo. Yo no creo, la verdad, no entiendo que no se pueda hacer, es lo que dice el Sr. Zulueta, se les han cerrado los negocios, es muy fácil empatizar desde un sillón y cobrando todos los meses con gente que le ha pasado esto.

“Hay familias enteras que es que no saben lo que van a hacer, se está alargando en el tiempo, los ahorros se los han comido, quiero decir, que no me parece que esto, con un poco de voluntad, que no pueda salir esta moción que solicita se inste a instancia superior para ayudar a gente, negocios del pueblo,



Yo no lo puedo entender.

“Por otro lado, como ha dicho el Sr. Zulueta, aunque creo que aquí no estamos la gente que a lo mejor en algún momento lo podríamos hacer, no lo sé, es porque es este colectivo. Es otro colectivo, con la banca, por dios, no hay que dejarla caer, que parece que se acaba el mundo y, sin embargo, aquí familias obreras, normales, trabajadores y trabajadoras y tampoco, ellos se están manifestando y nosotros desde el ayuntamiento, modestamente, se les ha ayudado y tal vez el ayuntamiento no podrá hacer más, pero insta por favor a estas instituciones, no sé que problema hay para instar a estas instituciones. A esas personas tendrán que ayudarles de alguna manera, igual que a las personas que están pasando transitoriamente, que no tienen ingresos, se les dá una RGI o lo que sea, una ayuda puntual, en un momento determinado que están pasando mal. Todos estamos diciendo, es que la pandemia, es que la pandemia, tenemos que ser solidarios, empatizar unos con otros, piden ayuda y se mira para otro lado, yo de verdad, me pueden explicar el problema que tienen con instar a las instituciones a que les ayuden, porque yo no lo entiendo.”

Jarrian, Goenaga jaunak, EAJ/PNVko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko.

“Nik bi gogoeta eta galdera bat. A ver nola esaten deten. Lehenbizikoa, berriro ere, formatara noa. Mozio hau ez da ezta mozioa... Nik uste dut mozio bat dala, dokumentuetan jasotzea erakunde batek edo instituzio batek edo batzar batek, gai, edozein gairen inguruan hartzen dituen konpromezu politikoak. Puntu. Nik uste dut dokumentuetan jasotzen direla Andoingo udalbatzak kasu honetan, ostalaritzaren eta Covidaren inguruan, laguntzen inguruan hartu dituen konpromezu politikoak, hiru puntuetan, bat, bi eta hiru. Ez badaizkizu gustatzen, oso ondo, baina berriro ere ari zara gutxietzen ezberdinaren dibertsitatea, hau da, nire ondokoak ez badu nik bezala pentsatzen kaka bat da, berak pentsatzen duena, errespetu bat, errespetu bat, nik errespetatzen ditut guztien iritziak baina, niri mintzen nau, benetan, gutxietzea besteon asmoak, testuak, iritzi politikoak, aizue izan dezagun errespetu pixka bat. Forma horiek mesedez, bat.

“Bi. Nik uste dut Andoingo udal honetan ez dagoela inor ukatzen duenik ostalaritzak bizi duen momentu txarra hau, al revés, konpromezu politikoa da egoera sozioekonomiko hau, larrien pasatzen duten kolektibo guztiak, Andoingo udalak egon behar du insituzio publikoa den bezala, ez ostalariei laguntzeko, noski baietz, ostalariak, merkataria, taxistak eta, egia da bereziki bizi dugun egoera honetan ostalariak behar dutela esfortzu berezi bat eta horregatik, Zulueta jauna, hartzen du konpromezu konkretua, laguntza programa bat jartzeko martxan ostalarientzako eta esaten dut izango dela indefinidoa, 100.000 eurokin hasten gara baina prest gaude behar den guztia osatzeko. Behar diren lan dinamika guztiak jartzeko.

“Askotan esan dugu hemen, eskatu dezakegu hemen antartidako pinguinoei inguruan baina, Andoingo udalbatzak Andoingo udal asuntoak, Andoingo udal politika eraldatu behar du eta, ez dakit Jonan Fernández izango den,, Maialen Iriarte edo Onintza Enbeita izango den. Ez dakit zein den guaiena. Baina nik uste dut parlamentuak, parlamentuko erabakiak hartu beharko dituela, Andoingo udalak bere ekite esparrutikan arazoari bilakaera eman behar diola eta, gaur hemen ekartzen dugun dokumentu hau, humiltasunez da, Andoingo udalbatza honek hartu dezaken konpromezua sektore honi zuzenean aurre egiteko eta, horixe da, sencillamente esanda, ez gehiago ez gutxiago eta, nik uste dut hori eztabaidan jartzen dugula modu natural batetan.

“Azkenik galdera. Berriro ere. Beti gaude exentzioekin, tasekin, zuek orain dela bi hilabete eskaz ze bozkatu zenuten udal tasa eta zergen udal aurrekontu proposamenean, es que, igual galdu egin nintzan egun horretan, ez nintzan egon edo...ze boto egin zenuten. Aldeko bozka, aurkakoa? Udal honek tasa eta zerga batzuk ditu. Kritikatu dituzue zuen hitzaldian ez ditugula behar besteko beherapenak egin, ez ditugula behar besteko esfuertzoak egin, aizu, nik dakidala aho batez tasa eta zerga horiek onartu ziren eta ez dira pasa ezta bi hilabete. Galdera bat da nire buruari egiten diodana, ez dakit zoratzen hasi garen edo,, izan gaitezen sentzudunak. Orain dela bi hilabete onartu ditugu tasa eta zerga batzuk.”

Jarraian, Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Desde el partido socialista decir varias cosas. Primera, que quede muy clara, nosotros somos el ayuntamiento de Andoain y tenemos que tomar las decisiones que afecten al ayuntamiento de Andoain y



como ayuntamiento de Andoain. En este salón de plenos muchas veces se ha dicho que se instaba a otras instituciones y no se tomaban decisiones que había que hacer en Andoain, pues precisamente lo que hemos querido recoger es lo que estamos haciendo, lo que es competencia nuestra, incluso lo que sin ser competencia nuestra, incluso sin ser competencia alguna de las ayudas que se han hecho, las que hemos podido llevar a cabo y desde luego las que si son competencia nuestra como tasas, impuestos hemos intentado llevar a cabo y tratar de ponerlas en marcha, lo que no vamos a admitir es que se diga que el ayuntamiento no ha estado con estos sectores como el Sr. Zulueta ha citado antes, es que las insituciones no han estado. No, las instituciones no, hay que decir, el ayuntamiento de Andoain sí ha estado, yo del resto no voy a hablar, porque nosotros somos, insisto, el ayuntamiento de Andoain y nosotros estamos aquí para defender el ayuntamiento de Andoain y, somos representantes y desde luego, lo que no se puede decir es que las insituciones no están ayudando. El ayuntamiento de Andoain está haciendo todo lo que puede y le gustaría hacer más y si pudiéramos trataríamos de hacer más y la intención es que en el 2021 sigamos ayudando y podamos hacer, pero lo que no vamos a admitir es que se diga que las instituciones no están ayudando a la hostelería de Andoain, porque entre otras cosas y voy a parafrasear a nuestro, al fundador del partido socialista, lo que queda claro es que nosotros estamos aquí en política para tomar decisiones con el Boletín Oficial, porque está muy bonito salir en la foto pero luego las decisiones las tomamos votando y cuando luego uno vota en contra no puede decir que quiere dar una ayudas, porque entonces hay que votar a favor. Si se quieren dar las ayudas hay que votar a favor, sino, luego no vale decir, no, no, nosotros también queríamos, nosotros también apoyamos, nosotros también estamos, votemos a favor y cuando las cosas salen por unanimidad el pueblo verá que todos estamos de acuerdo y ahora mismo la hostelería lo que necesita es ver que el ayuntamiento está con ellos y eso tenemos que tenerlo en cuenta una y otra vez y, desde luego, esta mañana hemos estado reunidos con ellos y es la explicación de porqué hemos presentado esta moción a las 14:20 hroas, porque desde las 12:00 horas hemos estado reunidos con ellos y les hemos dicho que teníamos además esta situación y que la moción, les hemos explicado porqué íbamos a hacer esto así y los representantes que han estado aquí lo han entendido, porque nosotros, insisto, como el ayuntamiento de Andoain y lo que es importante es que ellos vean que cada uno hace lo que puede desde aquí.”

Zulueta jaunak hartzen du hitza honakoa esateko: “Andoni Álvarez jaunak esaten duen bezala “comenzamos los plenos con una alcaldesa y los acabamos con una portavoz del PSOE”.

Jarraian, Santana andreak erantzuten du:

“Habrá que instar para que hagan algo con este colectivo, porque, además, no sabemos cuanto va a durar, entonces pregunto, mi pregunta es muy clara. ¿Qué problema hay en poder instar a las instituciones? No se está pidiendo nada. Que está muy bien el compromiso. Es complementario. O sea, puede ser, el compromiso más la instancia. ¿Qué problema hay?”

Jarraian, Goenaga jaunak, erantzuten du:

“Ez naiz asko sartuko, ikusten detelako debateak hartzen duela tonu bat oso pertsonala, akusaziokoa eta hori ez zait gustatzen. Ulertu dut biok ari zaretena errebindikatzen, o sea, kostziente naiz ostalaritzak itxi duela bertuta, ulertu det, ez naiz tontoa, ulertu dut, behin ulertuta badakit. Hala ere, esatea berriro eta berrestea udal honek ez duela planik, ez duela estrategiarik, ez daukala jo mugarik. Uste dut aste honetan bertan itxi direla, zuzendu Izagirre andrea, astelehen honetan bukatu zen epea, ostalarien kasuan 2.500 euroko dirulaguntza gehinezko eskaera egiteko, aste honetan bukatu da epea, ez dira hiru egun ere pasa eta arpegiratzea orain noraezean gabiltzala, errespetatzen dut horrela pentsatzen baduzue, baino nik pentsatzen dut ezetz eta zintzotasunez esaten dut. Nik uste dut badagoela estrategia bat, badagoela konpromezu bat eta eskatzea ondo dago Santana andrea, eskatu dezakegu nahi dugunari, baina goazen politika pop egitetik politika efektiboa egitera eta eskatu dezagun hemen, eskatu dezagun Batzar Nagusietan, eskatu dezagun Parlamentuan, eskatu dezagun Kongresuan eta, eskatu ez, negoziatu, partida ezarri eta zuk esaten duzun bezala, ekarpenak egin eta alde bozkatu. Eskatu, eskatu, eskatu, bai, baina pasa gaitezen postuarekin ekimen konkretuak egitera eta erabakiak hartzeta eta uste dut hor guztiok topatuko garela, baina, bitartean bakoitzak defendatuko du bere ikuspuntua eta, nire ustez, udalak gaur,



hemen, defendatu behar du berak ostalaritzarekiko hartzen dituen konpromezu konkretuak.”

Jarraian, Alkate andreak, hartu du hitza honakoa esateko:

“En críticas personales, efectivamente, no quiero entrar, pero lo que si me parece curioso es que ustedes quieran tener varios portavoces o puedan tener varios portavoces y el resto de partidos no. No, no, tenemos los que tenemos que tener y depende del Pleno intervenimos quienes tenemos que hablar, lo mismo que deciden usted, el resto, creo que tenemos el derecho y suele ser importante. Lo que no puede ser es que queramos hacer e imponer y esta Alcaldesa, normalmente empieza los plenos, pero también los suele terminar como Alcaldesa.”

Zulueta jaunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Puntualizazio bat. Me reafirmo en lo dicho. Necesitamos una Alcaldesa que cumpla su función institucional y no su función de partido., pero, simplemente para ver, de repente como Podemos ha pasado a la política guay, que majos sois, que bien lo haceis, apoyando el presupuesto y derrepente hacen política pop en el siguiente punto, pero bueno, este es el estilo de la casa, si estás conmigo eres lo mejor y en el siguiente punto haces política pop.

“Galdera bat eta horrekin bukatzen dut. Uste dut hau aktan jaso behar dela eta ostalariei erantzun behar zaiela, zergatik Musika Eskolako gurasoei itzultzen zaie dirua Musika Eskola itxita dagoenean, zergatik Kiroldegiko erabiltzaileei bueltatzen zaigu dirua Kiroldegia itxita dagoenean eta zergatik ostalariei kobratzen dizkiegu tasak, establezimenduak itxi dizkiogunean? Uste dut, hausnartu dezazute, baina zerbait egin behar dugu Andoainen eta baita ere exigentzia aldetik.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak Gipuzkoako Ostalariek aurkeztutako eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeek babestutako mozioa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeeko zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, ez du onartu.

Jarraian, Alkate andreak PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek aurkeztutako mozio alternatiboa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeeko zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, onartu du.

5. Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, zehazki, 709/2020 zenbakidunetik 796/2020 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatetzaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 709/2020 zenbakidunetik 796/2020 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6. Zinegotzi-Ahaldunen ebazpenen berri ematea, zehazki, 1001/2020 zenbakidunetik 1198/2020 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Zinegotzi-Ahaldunen ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, han zuzen ere, 1001/2020 zenbakidunetik 1198/2020 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkateak galde erreguen txanda ireki du eta lehendabizi Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:



“Badirudi gaurkoan ez garela formatan asmatzen ari eta ea oraingoan asmatzen dudan, edo esaten didazun. Izagirre andreari egingo diot eskaera eta ondoren esango didazu zein formatan eskatu behar dugun lortzeko.

“Hirugarren plenoa da, hirugarren plenoa da Goenaga jauna, eskatzen duguna APParen inzidentziak nahi ditugula eta pasatzeko APPko inzidentzia eta emandako erantzunak. Azaroan eskatu genuen lehen aldiz eta ez dakit zer modutan, zein da forma eskatzekoa. Iruditzen zait oposizio bezala eta herritarren ordezkari bezala informazio hori eskatzeko eskubidea dugula. Kalean jendeak geratzen gaitunean APPn jarritako inzidentzietan buruz galdetuz, guk ezin dugu erantzunik eman, ez dugu informazioa, hainbat hilabete pasatu dira eta jakin nahi dut zein formatan eskatu behar dugun.”

Izagirre andreak, EAJ/PNVko eleduna eta Zerbitzuetako zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Niri egin didazunez galdera, esango dizut, informazio hori jasotzea, elkartzea eta alderdi guztie helaraztea eskatuta dagoela, hala ere, aipatu duzu gardentasun falta dagoela, ez dut uste gardentasun falta dagoenik, egunero, egunero, egunero, pasatzen zaizkizunean udalean jasotzen diren eskaera guztiak, APPko inzidentzia guztiak, beraz, ez esan gardetasun falta dagoela. Bai, hori esan duzu. Esan, eskatu dut eta ez didazute eman.”

Bukatzeko, Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du: “Azken hilabete hauetan esaten ari garen bezala, andoindarrei arduraz jokatzeko eta indarrean neurri guztiak betetzea eskatzen diegu.

“Decíamos que damos por finalizado el pleno de hoy, pero no sin antes insistir, como lo estamos haciendo en los últimos meses, en un mensaje de responsabilidad individual a la ciudadanía para que sigamos cumpliendo correctamente las medidas del Covid y en ese sentido pedimos que se cumplan todas las medidas que haya y que sigamos actuando todos con responsabilidad. Mila esker. Gracias.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 20:54 minutu zirenean. Behin-behineko idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorri Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Behin-behineko idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.
Alkatea

Behin-behineko idazkaria

